

... ferrokarril zaharraren bidean Artikutzako panoramika ederraz gozatzeko eta Elizmendiko bidean basoaren itzalpean dagoen Erroiarriko urjauzia deskubritzeko aukera eskaintzen dizu.



- Ibilgailuz sartzeko baimena. Udalinfo: 010/943 48 10 00
- Edozein elementu natural erauztea debekatuta dago. Perretxikoak (gehienez 2kg/pertsonako/eguneko) eta gaztainak bildu daitezke.
- Zakurrek lotuta edo kontrolatuta joan behar dute.
- Bizikletaz ez irten pista eta bideetatik.
- Ehiza eta arrantza debekatuta.

ARTIKUTZA
Entzuna bezain ezezaguna
Tan cercana como desconocida




Erroiarrri
EGUTERA
laiotza *eta*

ARTIKUTZA



Obilbide
HONEK...



Aldapa handia dago, izei erraldoiekin topo egin ostean, jarraitu gora bidegurutzerarte, hemendik aurrera malda leuntzen da.




Planoburuko tren-geltokia.

Meategietako ferrokarril zaharrak egiten zuen bidera iritsi zara ①. Ezkerreko bidea hartuz (150 m) Planoburuko tren-geltokiaren eta plano inklinatuaren aurrietara iritsiko zara, baina zure helmugara iristeko, bidegurutzerara bueltatu eta Eskaseruntz jarraitu beharko duzu.

Denbora gutxian bidearen eskuinaldean bi errotarri ikusiko dituzu ②.



Aurrerago (60 min), bide ondoan dauden bi behatokitara gerturatuz, Artikutzako bista apartaz gozatu ③ eta bueltan hartuko duzun Elizmendiko bidea zure parean ikusi ahal izango duzu.



Bidera bueltatuz, egutera eta hariztitik atera eta erreperideraino lagun izango duzun pagadi ospel eta laiotzean barneratuko zara.



Errepidetik jarraitu Elizmendiko bidea adierazten duen paneleraino eta berriz pagadian murgilduko zara (1h 40 min) ④. Bidea zabaldu eta pixkanaka behera egiten du pagadi mugarratu, txondor plaza eta zenbait gaztainondoaren artean. Ezkerraldean sigi-sagako malda behearak, Eskaspeko errekaostoen ertzeraino eramango zaitu.

Egurrezko lehenengo zubia ⑤ eta Argarateko errekaostoa zeharkatzen duen bigarrena igaro ondoren ⑥, jarraitu bidea Erroiarriko erreka zure eskuinean duzula (2h 10 min). Ezkerreko aldapak ur-jauzira eramango zaitu ⑦.



Kontu handiz gerturatu zaitezke eta ondoren, pausu batzuk atzera egin eta aldapan gora jarraitu. Pinudira iristear zaudela parean duzun magalean ferrokarrilaren bidea ikusiko duzu. Granitozko lurzorua oinpean duzula, behearantz jarraitu haritz, gorosti eta birlandaketa zaharren artean. Eskuinaldean erdi eraitsita dagoen kanalak urtegia inguratzen duen pistatik gertu zaudela adieraziko dizu. ⑧ Behin pistara iritsi ondoren, eskuinera jarraitu eta burdin hesia zeharkatu ostean aterpetxera igo, presara joan edo auzora jaitsi zaitezke.

Balizatutako bide hau (PR-Na124), Artikutzako auzoa eta Eskaseko atezaindegia Erroiarriko errekaen bi ertzetatik lotzen dituen ibilbide zirkularra da.

Gal EZ zaitezten:

Artikutzako auzotik ateratzen den errepidea hartu eta metro gutxitara eskuinean agertzen den bidexka hartu.

